

0 unitatea. Elkarrekin berriro!

Oinarrizko gaitasunak
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 6-11. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 6-11. orriak

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Eskola komunitateko pertsonak zein diren jakitea.	Eskola komunitateko pertsonak aipatzea eta haien funtzioak azaltzea.
Eskolan errespetuzko eta elkarlanako jarrera izan behar dela ulertzea.	Ikaskideekin eta eskolako beste pertsonekin lankidetzan jarduteko adibideak proposatzea.
Bizikidetzaren arauak ezagutzea eta errespetatzea, eskolan eta eskolatik kanpo.	Eskolan eta eskolatik kanpo errespetatu behar diren bizikidetzaren arauak ezagutzea.
Elkarrizketa: gatazkak konpontzeko modu onena dela ulertzea.	Elkarrizketaren bitartez gatazkak konpontzea.
Talde lanaren abantailak ezagutzea.	Talde lanaren abantailak azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Eskola komunitatea.	Eskola komunitateko pertsonak zein diren jakitea eta haien funtzioak azaltzea.	Eskola komunitateko kide guztiak errespetatzea.
Bizikidetzaren arauak.	Eskolan eta eskolatik kanpo bete behar diren bizikidetzaren arauak aintzat hartzea (etxean, kalean, garraio publikoetan...).	Bizikidetzaren arauak errespetatu behar direla ulertzea.
Gatazkak konpontzea: elkarrizketa.	Gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko dituen abantailak azaltzea.	Elkarrizketa gatazkak konpontzeko modurik onena dela aintzat hartzea.
Lankidetzaren talde lana.	Talde lanetan modu aktiboan parte hartzea.	Talde lanak dituen abantailak kontzientzia hartzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	aza	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	-----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Elkarlana. Beste pertsonekin bizikidetzan, elkarlanak duen garrantzia ezagutzea.

Nork bere buruari eta gainerakoei begirunea. Pertsonen arteko bizikidetzarako, errespetua oinarrizkoa dela ulertzea.

Jarrera demokratikoa. Gainerakoen iritziak errespetatu behar direla ulertzea.

Metodologia

Eskolak ongi funtziona dezan eskola komunitateko pertsona guztien lana garrantzitsua dela azpimarratuko da, eta eskolan eta eskolatik kanpo jarraitu behar diren bizikidetzara arauak ezagutu behar direla.

Ikasle berriak baldin badaude, gelakideak jolastokiko jolasetan haiek kontuan hartzea eta ahalik eta azkarren integratzen laguntzera bultzatuko da.

Gatazkak konpontzeko elkarrizketak dituen abantailak azpimarratzea; haurrak besteen lekuan jartzera bultzatuko da, hobeto ulertzen saiatzeko eta elkar ulertzeko.

Taldekatzea

Unitateko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira. Ondoren, erantzunak ikasle guztien artean eztabaidatuko dira, kontzientziazio hobea lortzeko.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek Hizkuntzarekin du zerikusia, ahozko eta idatziko adierazpena eta ulermena bultzatzen dituelako.

1. unitatea. Gure gorputza

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 15, 19 eta 23. orriak
Matematikarako gaitasuna: 17 eta 21. orriak
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 13–23 eta 25. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna: 13 eta 24. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 20. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 23. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 24 eta 25. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 25. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Elikaduran parte hartzen duten aparatuak ezagutzea eta haien funtzionamendua ulertzea.	Elikaduran parte hartzen duten aparatuak izendatzea. Irudietako organoak zein diren jakitea, dagozkien aparatuekin lotzea eta haien funtzioa azaltzea. Zirkulazio aparatuaren funtzioak azaltzea.
Harreman funtzioan parte hartzen duten aparatuak eta sistemak zein diren jakitea eta haien funtzionamendua ulertzea.	Harreman funtzioan parte hartzen duten aparatuen eta sistemen ezaugarriak ezagutzea.
Arren eta emeen ugalketa aparatuei dagozkien organoak ezagutzea.	Gizakien ugalketa motak zein diren jakitea. Arren eta emeen ugalketa aparatuei dagozkien organoak ezagutzea.
Behar dutenei lagundu egin behar zaiela ulertzea.	Arreta berezia behar dutenei laguntzeko moduak aipatzea.
Barra grafikoak egiten ikastea.	Datu errazekin barra grafikoak eraikitzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Elikadura funtzioa: digestio aparatua, arnasa aparatua, iraitz aparatua eta zirkulazio aparatua.	Elikadura aparatuen organoak zein diren jakitea eta organo bakoitza dagozkion funtzioarekin lotzea.	Elikaduran parte hartzen duten aparatuak ezagutzeko jakin-mina.
Harreman funtzioa: zentzumenak, nerbio sistema eta lokomozio aparatua.	Zentzumen organoak, zatiak eta funtzioak ezagutzea.	Harreman funtzioan parte hartzen duten zentzumenak eta aparatuak eta sistemak ezagutzeko interesa.
	Nerbio sistemaren atalak eta funtzionamendua azaltzea.	
	Lokomozio-aparatuaren atalak zein diren jakitea: hezurak eta muskuluak, eta haien funtzioak.	
Ugalketa funtzioa: garapen faseak eta ugalketa aparatua.	Garapenaren faseak azaltzea.	Ugalketa funtzioan parte hartzen duten aparatuak ezagutzeko jakin-mina.
	Arren eta emeen ugalketa organoak bereiztea.	
Gainerakoekiko lankidetzak.	Urritasun fisikoak dituzten pertsonen lagundu behar zaiela ulertzea.	Arreta berezia behar dutenei lagundu behar zaiela ulertzea.
Grafikoak.	Barra grafikoak egitea eta interpretatzea.	Grafikoak egiteko interesa.

Iraupena

irai	la	urri	a	aza	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	-----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Gainerakoei zerbitzuak eskaintzea. Behar dutenei lagundu behar zaiela ulertzea.
Jakin-mina. Nork bere ingurutik kanpoko errealitateak ezagutzeko interesa erakustea.

Metodologia

Komenigarria izango litzateke unitatean ikasitako funtzioetan parte hartzen duten aparatuen eta organoen irudiak ikasleei erakustea, edo, izanez gero, hezurdura edo eredu anatomikoak erakustea, azalpenak osatzeko.

Zentzumenen atala lantzeko, proposatu ikasleei objektuak ekartzeko, esaterako: lixa zati bat, fruta, kolonia pote bat... ukimenaz, usaimenaz, etab. zuzenean sentsazioak bereizteko.

Azpmarratu garraio publikoetan erreserbaturiko eserlekuak errespetatu egin behar direla eta gainerako eserlekuak ere behar dutenei utzi behar zaizkiela.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldeen» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek Matematikarekin du zerikusia, barra-grafikoak sortzeko ariketetan; eta Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena garatzeko ariketetan. Gorputz Heziketarekin ere badu lotura, giza gorputzaren ezagutzari buruzko edukietan.

Baliabideak

Ikusi web orri hauek:

<http://ares.cnice.mec.es/ciengehi/index.htm> Web orri horretan elikadura, harreman eta ugalketa funtzioei buruzko edukiak daude.

http://www.educa.jcyl.es/educacyl/cm/zonaalumnos/tkPopUp?pgseed=1180704476302&idContent=8333&locale=es_ES&textOnly=false Web orri horretan giza gorputzaren aparatuei eta sistemei loturiko ariketak daude.

2. unitatea. Zentzumenak

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 29, 31, 33 eta 37. orriak
Matematikarako gaitasuna: 35. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 27–37 eta 39. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna: 27 eta 38. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 34. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 37. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 38 eta 39. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 39. orria

Helburuak	Ebaluazio erizpideak
Zentzumen organoak eta haien funtzioak ezagutzea.	Bost zentzumenen eta dagozkien organoen zerrenda egitea.
Zentzumen organoen atalak zein diren jakitea.	Zentzumen organoen atalak ezagutzea eta dagozkien zentzumenarekin lotzea.
Dastamenaren eta usaimenaren arteko lotura ulertzea.	Dastamenak eta usaimenak zapoak antzematean duten lotura azaltzea.
Zentzumen organoak osasuntsu izan behar direla ulertzea eta horiek zaintzen espezializaturiko sendagileak zein diren jakitea.	Zentzumen organoak eta haien zaintzeaz arduratzen diren espezialistak lotzea.
Zentzumenen batean urritasuna duten pertsonen mugak ezagutzea eta behar duten laguntza ematea.	Zentzumenen batean urritasuna duten pertsonen mugak aipatzea eta laguntzeko moduak proposatzea.
Zentzumen organoen funtzionamendua ezagutzea, esperimendazioaren bitartez.	Zentzumen organoak estimuluetara nola egokitzen diren azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Zentzumenak: ikusmena, entzumena, dastamena, usaimena eta ukimena.	Zentzumen organoak eta haien atalak zein diren jakitea.	Zentzumen organoak eta haien atalak ezagutzeko interesa.
Zentzumen organoen zaintza.	Zentzumen organoak zaintzeko oinarrizko arauen zerrenda egitea.	Zentzumen organoak osasuntsu mantendu behar direla ulertzea.
Zentzumenen sendagileak.	Zentzumen organoak zaintzen espezializaturiko sendagileak zein diren jakitea.	Sendagileek gaixotasunak prebenitzeko egindako lana aintzat hartzea.
Zentzumen urritasunak.	Zentzumen urritasunak dituzten pertsonen mugak zein diren jakitea.	Zentzumen urritasunak dituzten pertsonen lagundu behar zaiela ulertzea.
Zentzumen organoen funtzionamendua.	Zentzumen organoen funtzionamenduen esperimendazioa.	Zentzumen organoen funtzionamendua ezagutzeko jakin-mina.

Iraupena

irai	la	urri	a	aza	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	-----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Elkarlana. Zentzumenen batean urritasuna duten pertsonen bizimodua erraztea guztion lana dela ulertzea.

Enpatia. Zentzumenen batean urritasuna duten pertsonen lekuan jartzea, haien egoera hobeto ulertzeko eta behar duten laguntza emateko.

Metodologia

Unitate hau ez da oso zaila ikasleentzat, gaia aurrez landu dutelako. Komeni da, hala ere, zentzumen organoen irudiez laguntzea, azalpena osatzeko.

Bereziki azpimarratu behar da zentzumen organoetan sor litezkeen kalteak prebenitu behar direla, eta komeni dela sendagile espezialistengana jotzea aldika; batez ere, ikusmen, entzumen eta ahoko azterketak egiteko.

Ikasgelan zentzumen organoak babesteari buruzko ariketa praktikoak egin daitezke. Esaterako, ikusmena babesteko eguzkitakoak ekartzea; mingaina garbitzeko hortz-eskuilak ekartzea, etab.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" ataleko «Taldean» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek Matematikarekin du zerikusia, estimuluaren aurreko erantzuna egiaztatzeko esperimenduak diseinatzean eta egitean. Zerikusia du Hizkuntzarekin ere, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena bultzatzen baitu.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

http://www.pulevasalud.com/ps/subcategoria.jsp?ID_CATEGORIA=188&RUTA=1-4-188 Web orri horretan zentzumenekin eta zentzumen organoak zaintzearekin lotutako hainbat baliabide daude.

3. unitatea. Osasuna

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 45, 47 eta 51. orriak
Matematikarako gaitasuna: 43 eta 49. orriak
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 41–51 eta 53. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 41 eta 52. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 48. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 51. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 52 eta 53. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 53. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Osasuna zer den ulertzea.	Osasuntsu egotea zertan datzan azaltzea.
Jakien elikagaiak ezagutzea.	Jakien elikagaien zerrenda egitea.
Dieta orekatuetako jakiak ezagutzea, elikagaien piramideak lagunduta.	Dieta osasuntsua izateko elikagaiak aukeratzea, elikagaien piramideak lagunduta.
Elikadura osasuntsua izateko oinarrizko arauak ikastea.	Elikadura osasuntsua izateko ohitura egokiak zein diren jakitea.
Ohitura osasuntsuak izan behar direla ulertzea. Kirolaren eta aisialdiaren onurak ezagutzea.	Osasunari on egiten dioten ohiturak zein diren jakitea. Atsedeen egokiaren onurak azaltzea.
Etxean sor litezkeen ezbeharrak zein diren jakitea. Osasuntsu egoteko, ezbeharrak saihestu behar direla ulertzea.	Etxean sortzen diren ezbehar ohikoenak aipatzea eta horiek saihesteko hartu behar diren neurriak azaltzea.
Aisialdia planifikatzen ikastea.	Astebetean, arratsaldeetan egingo diren jarduerak planifikatzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Osasuna eta elikadura.	Osasuna zer den ulertzea.	Jakien elikagaiak ezagutzeko interesa.
	Jakien elikagaien zerrenda egitea	
	Jakien elikagaiak eta jakiak lotzea.	
Elikagaien gurgila.	Elikagaiak taldeka sailkatzea.	Elikagai motak ezagutzeko jakin-mina.
Dieta orekatua.	Elikagaien piramidea interpretatzea.	Dieta orekatuak izateak dituen onurak ulertzea.
	Dieta orekatuak sortzea.	
Ohitura osasuntsuak.	Elikadura, higijene, atsedeen eta kirol ohitura osasuntsuak azaltzea.	Osasuntsu egoteko, ohitura osasuntsuak izateak duen garrantzia aintzat hartzea.
Etxe ezbeharrak.	Etxean sor litezkeen ezbeharrak eta horiek saihesteko moduak zein diren jakitea.	Etxe ezbeharrak saihesteko interesa.
Denbora planifikatzea.	Aisialdia planifikatzeko taula bat egitea.	Denbora ongi planifikatzeak dituen abantailak ulertzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Nork bere buruari begirunea. Osasuntsu egoteko ohitura egokiak izan beharraz jabetzea.

Erantzukizuna. Etxeko ezbeharrak saihestea etxean bizi diren guztien lana dela ulertzea.

Metodologia

Haurren esperientzietatik abiatuko gara, hala elikadura nola ohitura osasuntsuetan, ohitura kaltegarriak hautemateko eta zuzentzen saiatzeko.

Ikasgelan supermerkatu birtual bat sor daiteke elikagaien irudiekin, haurrek dieta orekatuak sortzeko produktu egokiak aukeratzen ikas dezaten eta iraungitze datei erreparatzen ikas dezaten.

Ikasleei adieraziko zaie kirolean nahiz jolasetan garrantzitsuena ez dela irabaztea, besteekin harremanetan jartzea eta ongi pasatzea baizik.

Etxean ezbeharrak saihesteko hartu behar diren neurriei umeei arreta jar diezaieten lan egin.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldean» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek Matematikarekin du zerikusia, aisialdia planifikatzeko ariketaren bitartez, eta Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena bultzatzen dituelako. Era berean, kirolari eta osasunari buruzko edukiak estu lotuta daude Gorputz Heziketarekin.

Baliabideak

Ikusi web orri hauek:

http://clic.xtec.cat/db/act_es.jsp?id=1212. Web orri horretan elikadura osasuntsuari buruzko hainbat ariketa daude.

<http://www.curiosikid.com/view/index.asp?pageMS=23040&ms=158&jump=true> Web orri horretan elikagaiei buruzko hainbat jolas daude (jakien elikagaiak, dieta orekatuak, etab.).

4. unitatea. Ekosistemak

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 59, 61 eta 65. orriak
Matematikarako gaitasuna: 57. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 55–65 eta 67. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 55, 63 eta 66. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 62. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 65. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 66 eta 67. orria
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 67. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Ekosistemak zer diren ulertzea.	Ekosistemak zer diren definitzea eta definizioa irudiez ilustratzea.
Ekosistemen osagaiak ezagutzea.	Ekosistemen elementuak zein diren jakitea.
Izaki bizidunek jatekoa lortzeko duten moduaren arabera bereiztea.	Izaki bizidun ekoizleak eta izaki bizidun kontsumitzaileak bereiztea.
Izaki bizidunek elikadura kateetan duten lekua zein den jakitea.	Ekoizleek elikadura kateetan beti zergatik egon behar duten azaltzea.
Ekosistema batean, espezie bereko edo ezberdineko izaki bizidunen artean eratzen diren harremanak ezagutzea.	Ekosistema bateko izaki bizidunen artean sor litezkeen harremanak aipatzea.
Ekosistema motak ezagutzea.	Lurreko ekosistema nagusiak aipatzea. Uretako ekosistema motak zein diren jakitea.
Giza jarduerak ez dituela gainerako espezieak arriskuan jarri behar ulertzea.	Legez ezarritako tamaina baino arrain txikiagoak zergatik ez diren kontsumitu behar azaltzea.
Elikagai kateak interpretatzea.	Elikadura katea sortzea, eta katea osatzen duten izaki bizidunen arteko harremana azaltzea.

Kontzeptuak	Edukiak	
	Prozedurak	Jarrerak
Ekosistemak eta osagaiak.	Ekosistema baten osagaiak zein diren jakitea.	Ekosistema baten osagaiak ezagutzeko jakin-mina
Elikadura kateak.	Izaki bizidun ekoizleak eta izaki bizidun kontsumitzaileak bereiztea.	Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko aldea ezagutzeko interesa.
Espezie bereko izaki bizidunen arteko harremanak.	Ekosistema bateko izaki bizidunen arteko harremanak zein diren jakitea. Espezie ezberdinetako izaki bizidunen arteko harremanak azaltzea.	Ekosistema bateko izaki bizidunen arteko harremanak ezagutzeko jakin-mina.
Ekosistema motak.	Lurreko ekosistemak eta uretako ekosistemak bereiztea. Lurreko eta uretako ekosistema motak zein diren jakitea.	Ekosistema motak ezagutzeko interesa.
Espezieak kontsumitzea.	Arraina kontsumitzeko arauak azaltzea.	Uretako ekosistemak zaintzeko, arrainen tamainak errespetatu behar direla ulertzea.
Elikadura kateak interpretatzea.	Izaki bizidunek elikadura kateetan dituzten harremanak azaltzea.	Elikadura kateetan sortzen diren harremanak ezagutzeko jakin-mina.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Ingurumenari begirunea eta errespetua. Izaki bizidunak zaintzeko eta haiek bizi diren ingurumena babesteko konpromisoa hartu behar dela ulertzea.

Zentzuzko kontsumoa. Espezieak zentzuz kontsumitu behar direla ulertzea, desagertu ez daitezen.

Metodologia

Ekosistema guztietan osagai bizidunak eta bizigabeak daudela azpimarratuko da, eta adibideen bitartez azalduko da, ekosistemetako izaki bizidunak, elkarren menpe ez ezik, lurraren, hezetanaren, tenperaturaren eta bestelako osagai bizigabeen menpe ere badaudela.

Adibideen bitartez, izaki bizidunen arteko Elkarlana harremanak azaltzea: familia –gizakien kasuan–, txori multzoak, arrain sardak, etab.

Posible balitz, interesgarria izango litzateke mendira edo parkera irtetea, haurrek izaki bizidunak ikusteko aukera izan dezaten. Irakasleak bertatik bertara erakutsi ahal izango die izaki bizidunen elikadura katea.

Oso garrantzitsua da ikasleak jabetzea arrainak kontsumitzean tamaina errespetatu beharraz, uretako ekosistemak babesteko.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldea» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek Matematikarekin du zerikusia elikadura kateak eta konparatzeko taulak sortzean. Eta zerikusia du Hizkuntzarekin ere, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena garatzen laguntzen duelako.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

http://clic.xtec.cat/db/act_es.jsp?id=2962 Web orri horretan Penintsulako ekosistemak lantzeko hainbat ariketa daude.

5. unitatea. Natur paisaiak

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 75, 77, 79 eta 83. orriak
Matematikarako gaitasuna: 81. orria.
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 73-83 eta 85. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 73 eta 84. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 80. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 83. orriak
Ikasten ikasteko gaitasuna: 84 eta 85. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 85. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Natur paisaia motak bereiztea. Kostako eta lehorreko paisaien erliebe formak zein diren jakitea.	Paisaia motak ezagutzea.
	Kostako paisaiak eta lehorrekoak bereiztea.
	Erliebe formak paisaiaren arabera sailkatzea.
Erreken, itsasoen eta ozeanoen ezaugarriak ezagutzea.	Lur gaineko ur motak zein diren jakitea eta haien zerrenda egitea.
	Erreketako elementuak ezagutzea.
	Mareak bereiztea.
Euskal Herriko zona klimatikoak ezagutzea. Landaredia eta fauna bereiztea.	Paisaiek berezko landaredia eta fauna dutela aintzat hartzea.
	Landarediaren eta faunaren definizioa osatzea.
Parke nazionalak eta naturalak espezieak babesteko garrantzitsuak direla aintzat hartzea.	Landaredia eta fauna babesteko jarrera egokiak azaltzea.
Mapa fisikoak interpretatzen jakitea.	Mapa fisikoetako koloreen erabilgarritasuna azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Paisaiaren erliebea: kostako eta barneko paisaiak.	Kostako eta lehorreko paisaien berezko erliebeak zein diren jakitea.	Kostako eta lehorreko paisaiak eta haien erliebe ezaugarriak ezagutzeko jakin-mina
Lur gaineko uren ezaugarriak: errekek, itsasoak eta ozeanoak.	Erreken elementuak ezagutzea.	Lur gaineko uren berezitasunak ezagutzeko interesa.
	Erreken ibilguko atalak bereiztea.	
	Itsas uren mugimenduak zein diren jakitea.	
Landaredia eta fauna.	Landaredia eta fauna bereiztea.	Euskal Herriko berezko landaredia eta fauna ezagutzeko motibazioa.
	Euskal Herriko berezko landaredia eta fauna zein diren jakitea.	
Gune babestuak.	Natura, landaredia eta fauna babesteko eremuak sortu eta babestu behar direla ulertzea.	Zenbait ingurune natural bereziki babestu behar direla ulertzea.
Mapa fisikoak.	Mapa fisikoak interpretatzea.	Mapa fisikoak natur paisaien erliebea ezagutzeko erabilgarriak direla onartzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Ingurumenari begirunea eta errespetua. Ingurune naturala errespetatu eta zaindu behar dela ulertzea.

Erantzukizuna. Ingurune naturala eta bertako landaredia eta fauna zaintzea guztion erantzukizuna dela ulertzea.

Metodologia

Natur paisaien motak lehen zikloan ikasi dituztenez, unitate honetan errazagoa izango da paisaia bakoitzeko kontzeptu berriak sartzea. Landarediak, eta batez ere faunak, oso erraz bereganatzen dute haurren arreta, eta, beraz, ez da oso zaila izango kontzeptu horiek azaltzea.

Unitate honetan bereziki azpimarratuko da natur paisaiak eta bertako landaredia eta fauna babestu behar direla.

Mapa fisikoei dagokienez, haurrek haiek erabiltzen eta islatzen dituzten elementuen arabera koloreak interpretatzen ikasi beharko dute.

Taldekatzeta

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldean» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatzen duelako, eta Matematikarekin, taulak sailkatzean eta mapak irakurtzean.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

<http://ares.cnice.mec.es/ciengehi/index.html> Web orri horretan klimarekin zerikusia duten hainbat eduki daude.

Unidad 6. Pertsonen eraldatutako paisaiak

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 89, 91, 93 eta 97. orriak
Matematikarako gaitasuna: 95. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 87–97 eta 99. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 87 eta 98. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 94. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 97. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 98 eta 99. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 99. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Natur paisaiak eta eraldatutako paisaiak bereiztea. Paisaian eragiten diren eraldaketak ezagutzea.	Pertsonen paisaietan eragiten dituzten eraldaketen ondorioak zein diren jakitea.
Pertsonen paisaiak zergatik aldatzen ditugun ulertzea.	Pertsonen paisaiak eraldatzeko ditugun arrazoien zerrenda egitea.
Giza jarduerak paisaian dituen ondorio negatiboak zein diren jakitea. Paisaiak babesteko neurriak ezagutzea.	Landa eremuetara turismoak dakartzen onurak azaltzea.
Eraldatutako paisaiak eta haien ezaugarriak ezagutzea.	Eraldatutako paisaia motak bereiztea. Hiri eremuen berezko ezaugarriak azaltzea.
Garapena eta ingurumena bateragarriak direla ulertzea.	Ingurumena errespetatzen duten garapen alternatiboak proposatzea.
Paisaiak deskribatzen ikastea.	Paisaiak azaltzea, eta natur elementuak eta eraldatutako elementuak aipatzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Paisaiaren eraldaketak.	Pertsonen paisaiak eraldatzeko dituzten arrazoiak zein diren jakitea.	Gizakia garatzeko paisaiak eraldatu behar direla ulertzea.
Paisaiari eragindako kalteak.	Pertsonen paisaiari eragiten dizkieten kalteak zein diren jakitea.	Paisaian eragindako kalteekiko jarrera kritikoa.
Paisaia babestea.	Paisaia babesteko hartu behar diren neurriak azaltzea.	Paisaia babestu beharraz jabetzea.
Eraldatutako paisaiak: hiri paisaiak eta landa paisaiak.	Hiri paisaiak eta landa paisaiak bereiztea. Hiritako eta herrietako bizimodua azaltzea.	Hiritako eta herrietako bizimodua ezagutzeko interesa.
Paisaia errespetatzea.	Paisaia errespetatzen duten jarduerak zein diren jakitea.	Ingurumena errespetatzen duten jarrerak aintzat hartzea.
Paisaia azaltzea.	Paisaia osatzen duten elementuak zein diren jakitea.	Paisaiak aztertzeke eta azaltzeke interesa.

Iraupena

irai	la	urri	a	aza	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	-----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Ingurumenari begirunea eta errespetua. Giza jarduerak ingurumenean ahalik eta inpaktu txikien eragin behar dutela ulertzea.

Metodologia

Ikasgelan paisaia motak eta babes neurriak ikasi aurretik, komeni da ingurune naturalen batera joatea; horrela, bisitaturiko eremua erreferentziatzat hartu ahal izango da.

Pertsonok, gainerako izaki bizidunek bezala, bizitzeko, gehiago edo gutxiago, inguruko paisaia eraldatu behar dugula azaltzea (inurriek, esaterako, inurritegiak eraikitzeke; txoriek, habiak egiteko, etab.).

Komeni da azpimarratzea paisaia modu ordenatuan eraldatu behar dela ingurumenari ahalik eta kalterik txikiena eragiteko. Guztiok ingurumena errespetatu eta babestu behar dugula nabarmentzea.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldean» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Hizkuntzarekin, irakurtzean ulermena, eta ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatzen dituelako.

Baliabideak

Ikusi web orri hauek:

<http://www.honoloko.com/Honoloko.html> Web orri horretan simulazio jolas bat dago, gure jarduerak ingurumenean eragiten dituzten ondorioak ebaluatzeko.

<http://www.mediambient.bcn.es/verdia/cas/cont.htm> Web orri horretan, ingurumenari dagokionez, jarrera egokiei buruzko hainbat ariketa daude.

7. unitatea. Energia

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 103, 107 eta 111. orriak
Matematikarako gaitasuna: 105. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 101-111 eta 113. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 101, 109 eta 112. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 108. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 111. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 112 eta 113. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 113. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Energia agertzeko eta eraldatzeko moduak ezagutzea.	Energiaren agerbideak aipatzea. Energia nola eraldatzen den azaltzea.
Energia iturri bat zer den jakitea. Izaki bizidunek behar dituzten eta makinek erabiltzen dituzten energia iturriak zein diren jakitea.	Energia iturriak zer diren azaltzea. Makinak eta erabiltzen dituzten energia motak lotzea.
Argi iturriak ezagutzea.	Argi iturriek igortzen dituzten argi motak aipatzea.
Argi-islapenaren kontzeptua ulertzea. Gorputz opakuak, zeharrargiak eta gardenak bereiztea.	Argiaren aurrean duten jarreraren arabera, gorputz moten zerrenda egitea, eta gorputz horien ezaugarriak zein diren jakitea. Itzalak nola sortzen diren azaltzea.
Argi naturalaren osaera ezagutzea.	Argi zuria zerez osatuta dagoen azaltzea.
Energia modu arduratsuan erabili behar dela ulertzea.	Energia aurrezteko hiru modu proposatzea.
Argi zuria ostadarraren zazpi koloreak batuz sortzen dela frogatzea.	Argi zuriak ostadarraren zazpi koloreak dituela nola froga daitekeen azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Energia motak.	Energiaren agerbideak zein diren jakitea.	Energiaren agerbideak ezagutzeko jakin-mina.
Energiaren eraldaketak.	Energiaren eraldaketak azaltzea.	Energiaren eraldaketak ezagutzeko interesa.
Energia eta izaki bizidunak.	Izaki bizidunek behar duten energia elikagaietatik lortzen dutela ulertzea.	Elikadura egokiak duen garrantzia aintzat hartzea.
Energia eta makinak.	Makinek erabiltzen dituzten energiak bereiztea.	Makinek funtzionatzeko behar dituzten energiak ezagutzeko jakin-mina.
Argi iturriak.	Argi iturriak zein diren jakitea.	Argi iturriak ezagutzeko jakin-mina.
Gorputz motak, argiaren aurrean duten jarreraren arabera.	Gorputz opakuak, zeharrargiak eta gardenak bereiztea.	Argiaren aurrean duten jarreraren arabera, gorputz motak ezagutzeko interesa.
Argiaren deskonposizioa.	Argi zuria osatzen duten koloreak zein diren jakitea.	Argi naturalaren osaera ezagutzeko jakin-mina.
Energia eta kutsadura.	Energia ekoizteak atmosfera kutsatzen duela ulertzea.	Kutsadura gutxitzeko, energia aurreztu beharraz jabetzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Arrazoizko kontsumoa. Energia egoki erabiltzen saiatzea, atmosfera beharrik gabe ez kutsatzeko.

Metodologia

Energiaren kontzeptua lantzean, azpimarratu behar da ikusten ez dugun arren leku guztietan dagoela eta hainbat modutan agertzen dela gure eguneroko bizimoduan; adibidez, argindarra, argia edo beroa.

Argi naturala ostadarraren zazpi koloreetan nola deskonposatzen den azaltzeko, beirazko prisma bat erabil daiteke. Prismarik izan ezean, egun eguzkitsu batean hurrekin jolastokira irten eta mangerako uraz ostadarra sor dezakegu.

Eskolara objektu gardenak, zeharrargiak eta opakak ekar daitezke, eta umeez, manipulatzeko, bakoitzaren propietateak ezagutzeko. Era berean, linternaz jolas daiteke, itzalen mugimenduak behatzeko.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldeen» atala, lau pabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du, batetik, Matematikarekin, taulak sailkatzeko ariketaren bidez; eta, bestetik, Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatzen duelako.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

<http://www.curiosikid.com/view/index.asp?pageMS=23040&ms=158&jump=true> Web orri horretan argiarekin eta energia iturriekin zerikusia duten hainbat jolas daude.

8. unitatea. Energia eta ingurumena

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 119, 121 eta 125. orriak
Matematikarako gaitasuna: 117. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 115-125 eta 127. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 115, 123 eta 126. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 122. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 125. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 126 eta 127. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 127. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Energia iturriak bereiztea: energia berriztagarriak eta ez berriztagarriak.	Energia berriztagarri eta ez berriztagarri nagusiak aipatzea. Energia ez berriztagarriak zergatik agor daitezkeen eta energia berriztagarriak zergatik ezin diren agortu azaltzea. Energia berriztagarriek ez berriztagarrien aldean dituzten abantailen zerrenda egitea.
Energia erabiltzeak ingurumenean eragiten dituen ondorioak zein diren jakitea.	Energia erabiltzeak ingurumenean eragiten dituen ondorio kaltegarriak ezagutzea. Energia ez berriztagarriak erabiltzean isurtzen diren gasen ondorioak ezagutzea.
Energia iturrien erabilerak zein diren jakitea eguneroko bizimoduan eta industrian.	Energia iturrien erabilerak aipatzea.
Energia iturri guztiak ingurumenari eragiten diotela ulertzea.	Energia aurrezteak zergatik den beharrezkoa azaltzea.
Makinek funtzionatzeko behar dituzten energia iturriak zein diren jakitea.	Energia mota ezberdinekin funtzionatzen duten makinak aipatzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Energia motak: energia berriztagarriak eta ez berriztagarriak.	Bi energia iturriak azaltzea: berriztagarriak eta ez berriztagarriak.	Energia motak eta haien ezaugarriak ezagutzeko jakin-mina.
Energia iturrien erabilerak: erabilera pribatua eta publikoa, erabilera industrialak.	Eguneroko bizimoduan eta industrian energiari ematen zaizkion erabilerak bereiztea.	Energia erabilerak ezagutzeko interesa.
Energia erabiltzeak ingurumenean dituen ondorioak.	Energia erabiltzeak ingurumenean dituen ondorio kaltegarriak zein diren jakitea.	Energia mota oro sortzea ingurumenerako kaltegarria dela ulertzea.
Energia arduraz kontsumitzea.	Energia ez berriztagarriak mugatuak direla ulertzea. Energia aurrezteko moduak azaltzea.	Energia modu egokian aprobetxatu beharraz jabetzea.
Makinak eta energia iturriak.	Makinek funtzionatzeko erabil ditzaketen energia motak zein diren jakitea.	Makina bakoitzak funtzionatzeko behar duen energia mota ezagutzeko interesa.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Erantzukizuna. Energia sortzeak ingurumenean kalteak beti eragiten dituela ulertzea, eta, beraz, energia modu arduratsuan erabili behar dugula, alferrik xahutu barik.

Metodologia

Energia berriztagarriek, ez berriztagarrien aldean, dituzten abantailak azpimarratzea: garbiagoak dira eta ez dira agortzen.

Umeei hainbat energia iturri ikusi ahal izateko, eguzki zeluladun kalkulagailu bat (agortzen ez den eta kutsatzen ez duen energiaren elikatzen da) eta piladun linterna bat (iraupen zehatza dute eta kutsagarriak dira) ekar daitezke.

Umeei energia aurreztu behar dela ulertaraztea, energia ez berriztagarriak mugatuak direlako eta amaitu egingo direlako, eta, halaber, energia berriztagarriak erabiltzeak ere ingurumenari eragiten diolako.

Taldekatzeta

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldeen» atala, lauzpabost ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Matematikarekin, datuak taula batean sailkatzeko ariketan; eta Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena garatzen eta hiztegia aberasten laguntzen duelako.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

<http://www.curiosikid.com/view/index.asp?pageMS=23040&ms=158&jump=true> Web orri horretan energiari buruzko hainbat jolas daude.

9. unitatea. Lurraldearen antolamendua

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 135 eta 143. orriak
Matematikarako gaitasuna: 137 eta 139. orriak
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 133-143 eta 145. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 133, 141 eta 144. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 140. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 143. orriak.
Ikasten ikasteko gaitasuna: 144 eta 145. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 145. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Lurraldeen muga motak bereiztea.	Muga naturalak eta muga artifizialak bereiztea.
Lurraldeak adierazteko moduak ezagutzea.	Lurraldeak adierazteko moduen zerrenda egitea.
Euskal Herriaren mugak ezagutzea.	Euskal Herriaren mugak aipatzea.
Lurralde banaketak zein diren jakitea. Espainiako probintzia banaketa ezagutzea.	Euskal Herri barruko lurralde banaketak izendatzea.
	Euskal probintziak kostakoak eta lehorrekoak bereiziz sailkatzea.
Euskal Herriaren probintzia banaketa ezagutzea.	Autonomia erkidegoak aipatzea eta probintzia bakarrekoak eta hainbat probintziatakoak bereiziz sailkatzea.
	Gure autonomia erkidegoaren, hiriburuaren eta probintzien izenak idaztea.
Autonomia erkidegoetako gobernu sinboloak eta organoak ezagutzea.	Konstituzioaren ostean, autonomia erkidegoen lege garrantzitsuena Autonomia Estatutua dela aintzat hartzea.
	Autonomia erkidegoetako gobernu sinboloak eta organoak aipatzea.
Immigrazioa zer den eta zerk eragiten duen jakitea. Immigranteei integrazten lagundu behar zaiela ulertzea.	Euskal gizartea multikulturala zergatik den azaltzea.
Mapa politikoak interpretatzen ikastea.	Euskal Herriaren mugak mapa batean zein diren jakitea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Lurraldearen mugak: muga naturalak eta artifizialak.	Muga naturalak eta artifizialak bereiztea.	Euskal Herriaren mugak ezagutzeko interesa.
	Euskal Herriaren muga naturalen eta artifizialen zerrenda egitea eta mapan kokatzea.	
Lurraldearen irudikapena: planoak eta mapak.	Lurraldea irudikatzeko zenbait modu azaltzea.	Lurraldeak ezagutzeko planoak eta mapak aintzat hartzea.
Euskal Herriko lurralde antolaketa.	Euskal Herriaren lurralde banaketak azaltzea.	Euskal Herriko lurralde antolamendua ezagutzeko interesa.
Autonomia erkidegoak, sinboloak eta gobernu organoak.	Autonomia erkidegoak zein diren jakitea eta haien sinboloak eta gobernu organoak azaltzea.	Autonomia erkidegoak, sinboloak eta gobernu organoak ezagutzeko jakin-mina.
Immigrazioa.	Immigrazioaren arazoak azaltzea. Etorrinei integrazten lagundu behar zaiela ulertzea.	Gainerako kulturak errespetatzea eta norberaren kulturaren garrantzia aintzat hartzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Berdintasuna. Pertsona guztiek, jatorria, arraza edo erlijioa gorabehera, eskubide eta betebeharrak berberak dituztela ulertzea.

Tolerantzia. Gainerako kulturen ohiturak eta sinesmenak errespetatzea eta gurea nola aberasten duten aintzat hartzea.

Metodologia

Komeni da umeei Euskal Herriko mapa fisikoak eta politikoak erabiltzea, horiek erabiltzen ohitu daitezzen eta unitateko azalpenak praktikan frogatu ditzaten. Mapa mutuak erabili daitezke mugak politikoak eta mugak naturalak edo erlieberak eraketa (errekak, mendi sistemak, etab.) nagusiak kokatzeko.

Bereziki azpimarratu behar da etorkinei euskal gizartean integratzen lagundu behar zaiela. Eskolan beste autonomia erkidego batzuetako edo beste herrialde batzuetako ikasleak baldin badaude, jaialdi multikulturala antolatu daiteke, kultura bakoitzeko haurrek bere jatorrizko herrialdeko berezitasunen bat erakusteko: musika, tradiziozko janaria, jantziak, argazkiak...

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatu dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldea» atala, ikasle guztiak batera, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Matematikarekin, antolamendu eta sailkatze ariketetan; eta Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpenean.

Baliabideak

Ikusi web orri hauek:

http://clic.xtec.cat/db/act_es.jsp?id=1410 Web orri horretan autonomia erkidegoei buruzko ariketak daude (probintziak, kapitalak, mapak eta banderak).

http://centros3.pntic.mec.es/cp_alhandiga/jmatch/cmedio/bander1.htm Orri horretan autonomia erkidegoen banderekin zerikusia duten jolasak proposatzen dira.

10. unitatea. Udalerriaren antolamendua

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 149, 151, 153 eta 157. orriak
Matematikarako gaitasuna: 155. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 147-157 eta 159. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 147 eta 158. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 154. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 157. orria.
Ikasten ikasteko gaitasuna: 158 eta 159. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 159. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Udalaren gobernu organoak eta haien funtzioak ezagutzea.	Udalbatza nork osatzen duten azaltzea.
	Udalaren funtzioak aipatzea.
	Zinegotzigoak eta haien funtzioak lotzea.
Eremu publikoak ezagutzea.	Eremu publikoen erabilera azaltzea.
Zerbitzu publikoak ezagutzea	Udal zerbitzuak aipatzea eta zer diren azaltzea.
Auzo elkartearen funtzionamendua ezagutzea.	Auzo elkarteak zer diren azaltzea.
Udal hauteskundearen prozesua ulertzea.	Hauteskunde prozesua azaltzea.
Festen eta tradizioen esanahia ulertzea.	Parte hartu duten festa edo tradizio bat azaltzea.
Organigramak egiten ikastea.	Organigramak zertarako erabiltzen diren azaltzea eta nola egiten diren ikastea.
	Organigrama sinple bat egitea.

Kontzeptuak	Edukiak	
	Prozedurak	Jarrerak
Udalbatza.	Alkatea eta zinegotziak, udaleko agintariak, zein diren jakitea.	Udalerriaren gobernuaren antolamendua eta funtzionamendua ezagutzeko jakin-mina.
	Zinegotzigoetako zerbitzu publikoen antolamendua azaltzea	
Eremu publikoa.	Erabilera publikoko eremuak zein diren jakitea.	Eremu publikoak bizilagunen harremanetarako leku gisa ezagutzea.
Zerbitzu publikoak.	Zerbitzu publikoak zein diren jakitea.	Zerbitzu publikoek udalaren funtzionamendu egokian duten eragina aintzat hartzea.
	Zerbitzu publikoak eta bertako langileak lotzea.	
Herritarren parte-hartzea.	Bizilagunen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea.	Herritarrek udalean parte hartzeko dituzten bideak ezagutzeko interesa.
	Bizilagunen elkartearen funtzionamendua azaltzea.	
	Udal hauteskundearen prozesua ulertzea.	
Kultura adierazpenak.	Festa eta tradizio guztien balioa eta esanahia azaltzea.	Kultur adierazpenak errespetatzea.
Organigrama.	Organigrama bakun bat egitea.	Organigramak informazioa antolatzeko bitarteko gisa hartzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Nork bere buruari eta gainerakoei begirunea. Kultura tradizio eta adierazpen guztiek esanahi bat dutela eta errespetua merezi dutela ulertzea.

Metodologia

Komeni da ikasgelan udal hauteskudearen prozesua antzeztea. Horretarako, hauteskudeak antola daitezke, hainbat neska-mutil zinegotzi karguetarako aurkeztuta; bozketak egin ostean, hauteskunde mahaia osatu eta zinegotziak hautatuko dira.

Horiek bildu eta alkatea aukeratuko dute.

Azkenik, zinegotzietan zinegotzigoak banatuko zaizkie.

Herriko jai nagusiren bat aprobetxatuta, kultur adierazpenen gaia landu daiteke.

Ikasleei herriko festen jatorria eta esanahia azaldu eta gure kultura aberasten dutelako garrantzitsuak direla azpimarratu.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldeen» atala, hiruzpalau ikasleko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du, batetik, Matematikarekin organigramak sortzeko ariketan; eta, bestetik, Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena eta ulermena bultzatzen duelako.

11. unitatea. Gure iragana

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 163, 165, 167 eta 171. orriak
Matematikarako gaitasuna: 172. orria
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 161-171 eta 173. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 161, 169, 172. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 168. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 171. orria.
Ikasten ikasteko gaitasuna: 172 eta 173. orriak
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 173. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
Lehen gizakien bizimodua ezagutzea. Herrialde nomadak eta sedentarioak bereiztea.	Gizakiak sedentario noiz bihurtu ziren azaltzea.
Erromatar Inperioaren zenbait berezitasun ezagutzea.	Erromatar Inperioa desagertu zenean zer gertatu zen azaltzea. Erromatar Inperioko lurraldeak zehaztea.
Gazteluen garaian gizartearen egitura ezagutzea.	Gazteluen garaian herrialdeetan zeuden gizarte mailak irudietan ezagutzea eta gizartean zuten funtzioa azaltzea.
Aurkikuntzen garaian gertatu ziren aldaketak ezagutzea.	Amerika noiz aurkitu zuten esatea. Lurra biribila dela nola ziurtatu zen azaltzea.
Industria modernoa nola sortu zen ezagutzea.	Industria modernoa nola sortu zen adieraztea.
xx. mendean lortutako aurrerapen zientifikoak eta teknikoak ezagutzea.	xx. mendeko osasun, komunikazio eta garraio arloko aurrerapenen zerrenda egitea.
Gatazkak konpontzeko metodo baketsuak erabilgarriak direla ulertzea.	Eskoletan, Indarkeriarik gabeko eta Bakearen aldeko Eguna zergatik ospatzen den azaltzea.
Artearen garrantzia azpimarratzea, iraganaren isla den neurrian.	Libreki aukeraturiko artelan bat azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
Lehen gizakiak: herrialde nomadak eta herrialde sedentarioak.	Lehen herrialde nomaden ezaugarriak zein diren eta sedentario bihurtu arteko eraldaketa zein den jakitea.	Lehen gizakien bizimodua ezagutzeko jakin-mina.
Erromatarren garaia.	Erromatar herriaren bizimodua eta ohiturak azaltzea.	Erromatarren garaia eta erromatar gizartea ezagutzeko interesa.
Gazteluen garaia.	Gazteluen garaiko gizartea ezagutzea.	Gazteluen garaiko gizartea ezagutzeko jakin-mina.
Aurkikuntzen garaia.	Amerika aurkitu ostean gertatu ziren aldaketa handiak azaltzea.	Aurkikuntzen garaiko aldaketak eta asmakizunak ezagutzeko interesa.
Asmakizunen garaia.	Industria modernoa nola jaio zen azaltzea.	Industria berriari esker sortu ziren asmakizunak ezagutzeko jakin-mina.
xx. mendeko aurrerapenak.	xx. mendeko aurrerapen teknikoak eta zientifikoak aipatzea.	xx. mendean lortutako aurrerapenen garrantzia ulertzea.
Borroka baketsua.	Gatazkak konpontzeko metodo baketsuak erabiltzeko duen garrantzia azaltzea.	Gatazkak konpontzeko elkarriketa erabilgarria dela aintzat hartzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	rila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Bakea. Gatazkak beti bide baketsuen bidez konpontzen saiatu behar dela ulertzea, indarkeriak ez dituelako arazoak konpontzen, areagotu baizik.

Esanahi estetikoa. Artelanak aztertzeke gaitasuna garatzea, ulertzeke eta bere balioa antzemateke.

Metodologia

Ikasleek iraganari buruz duten ezagutzatik abiatuta, Historia kontzeptua irakatsiko da. Historiako arreak azaldu aurretik, komeni da *"Bazen behin gizakia"* obrako atalen bat ikustea, unitateko edukiak ulertzen laguntzeko. Komeni da, halaber, ikasgelara garai bakoitzeko harrizko erremintak, buztinezko tresnak, etab. ekartzea. Baita joan den mendean sortutako aurrerapenen tresnak ere.

Gandhiren historia abiapuntu hartuta, azpimarratu elkarrizketa dela pertsonen arteko gatazkak konpontzeko biderik onena.

Prozeduren orria lantzean, artelanak behatuz gure arbasoen bizimoduari buruzko informazio baliotsua lor dezakegula nabarmendu.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; *"Gure mundua maitatuz"* zatiko «Taldea» atala, ikasle guztiak batera, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatzen duelako; zerikusia du Matematikarekin ere, informazioa giltza-eskemen antolatzeke ariketan.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

<http://ares.cnice.mec.es/ciengehi/index.html> Web orri horretan Historiako hainbat arori buruzko edukiak daude.

12. unitatea. Azken mendeko aldaketak

Oinarrizko gaitasunak
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna: 177, 179, 181 eta 185. orriak
Matematikarako gaitasuna: 183. orria.
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna: 175-185 eta 187. orriak
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna: 175 eta 186. orriak
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna: 182. orria
Giza eta arte kulturarako gaitasuna: 185. orria
Ikasten ikasteko gaitasuna: 186 eta 187. orriak.
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna: 187. orria

Helburuak	Ebaluazio irizpideak
xx. mendean lanean eta familian gertatu diren aldaketak ezagutzea.	xx. mendean gizartean gertatu diren aldaketen zerrenda egitea. Euskal Herriko herritar gehienek zein ekonomia sektoretan lan egiten duten azaltzea.
Migrazioen arrazoiak ulertzea.	Hirietara joandako migrazioaren arrazoiak azaltzea. Gizarte multikultural baten irudia aintzat hartzea eta zertan datzan azaltzea.
xx. mendean medikuntzan eta hezkuntzan lortutako aurrerapenak ezagutzea.	Euskal Herrian bizi diren pertsonen zer osasun eskubide dituzten azaltzea.
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna gure gizarteak oraintsu erdietsi duen lorpena dela ulertzea.	Gizonen eta emakumeen eskubideen eta betebeharren berdintasuna adieraztea.
xx. mendean zientzian, garraioan eta komunikazioetan lortutako aurrerapenak ezagutzea.	xx. mendean zientzian, garraioan eta komunikazioetan lorturiko aurrerapenak aipatzea.
Haurren eskubideak ezagutzea.	Munduko haur guztiek izan behar dituzten eskubideak ezagutzea.
Inkestak egiten ikastea. Inkestak zertarako diren erabilgarri ikastea.	Gelan inkesta txiki bat egitea. Inkestek zertarako balio duten azaltzea.

Edukiak		
Kontzeptuak	Prozedurak	Jarrerak
xx. mendean lanean eta familian izan diren aldaketak.	Ekonomia sektoreetan lanak izan duen garapena azaltzea. Familiak xx. mendean izan duen garapena azaltzea.	xx. mendean lanak eta familiak izan duen garapena ezagutzeko jakin-mina.
Migrazioak.	Migrazioen arrazoiak azaltzea eta gizarte multikulturala azaltzea	Migrazioetatik datozen kultura ekarpenak aintzat hartzea.
Medikuntza eta hezkuntza arloko aurrerapenak.	Medikuntza eta osasun arloko aurrerapenak zein diren jakitea. Hezkuntza arloko aurrerapenak azaltzea.	Medikuntzan eta hezkuntzan lortutako aurrerapenak ezagutzeko interesa.
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.	Sexuen arteko berdintasuna lortzeko egindako aurrerapenak aipatzea.	Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun osoa lortu behar dela ulertzea.
Zientzia, garraio eta komunikazio arloko aurrerapenak.	xx. mendean zientzian, garraioan eta komunikazioetan izandako hobekuntzak azaltzea.	Zientzian, garraioan eta komunikazioetan izandako aurrerapenak ezagutzeko jakin-mina.
Haurren eskubideak.	Haurren eskubideak aipatzea.	Haurren eskubideak errespetatu behar direla ulertzea.
Inkestak.	Inkestak egitea eta interpretatzea.	Inkestak erabilgarriak direla ulertzea.

Iraupena

irai	la	urri	a	a	za	roa	aben	dua	urta	rrila	otsai	la	mar	txoa	api	mila	maia	tza	ekai	na
------	----	------	---	---	----	-----	------	-----	------	-------	-------	----	-----	------	-----	------	------	-----	------	----

Balioak

Berdintasuna. Gizonek eta emakumeek eskubide eta betebeharrak dituztela ulertzea.

Nork bere buruari eta gainerakoei begirunea. Pertsona guztien eskubideak errespetatu behar direla eta norberaren eskubideak errespetatzea exijitu behar dela ulertzea.

Metodologia

Joan den mendean lanak izandako garapena lantzean, aipatu lehen sektorea mekanizatu eta bigarren sektorea automatizatu zelako garatu zela hirugarren sektorea. Migrazioaren eta egungo familia moten gaia landuko da, gizartea garatzearen ondorio gisa. Gizarte multikulturalen abantailak azpimarratuko dira.

Garraio bide eta komunikazio arloko aurrerapenak azaltzeko irudiak erabil daitezke, izan diren garapenak ikasleek hobeto uler ditzaten.

Balioen orrian, gogoratu umeei eskubideez gozatzeaz gain, gainerakoen eskubideak errespetatu behar dituztela.

Taldekatzea

Orrialde bikoitz motibagarriko ariketak egiteko, bizpahiru ikasleko taldeak osatuko dira; "*Gure mundua maitatuz*" zatiko «Taldea» atala, hiru eta bost ikasle arteko taldeetan, eta gainerako ariketak, bakarka edo binaka.

Diziplinartekotasuna

Unitate honek zerikusia du Matematikarekin, inkestak egiteko eta interpretatzeko ariketan; eta Hizkuntzarekin, ahozko eta idatzizko adierazpena bultzatzen duelako.

Baliabideak

Ikusi web orri hau:

http://espaiescoles.farmacueticonline.com/cast/inici_c.html Web orri horretan medikuntzari buruzko edukiak eta ariketak daude.